

ADIERAZLEA:	ESTABLEZIMENDU KOPURUA
FITXA METODOLOGIKOA	
ARDATZA:	EKONOMIA
ALORRA:	SALTOKIEN DEMOGRAFIA
DEFINIZIOA:	
Udalerrian dauden establezimendu kopurua.	
NEURRI UNITATEA:	
Establezimendua	
KALKULU METODOLOGIA:	
Establezimendu kopurua.	
KALKULU MAIZTASUNA:	
Urtero	
INFORMAZIO ITURRIAK:	
Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID), Eustat.	
OHARRAK:	
<p>Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID) eragiketak informazioa jasotzen du Euskal AEn jarduera ekonomikoak egiten dituzten establezimenduen eta enpresena; oinarritzko egiturazko informazioa ematen du jarduera ekonomikoaren sektoreen gainean eta erreferentzi-markoa da zentsuak eta inkestak egiteko; erkidegoko establezimenduetan lanean ari den biztanleriaren azterketa ere ahalbidetzen du. Gaur egun ez dira sartzen lehen sektoreko jarduerak, etxerako langileak enplegatzen dituzten familiak eta lurraldez kanpoko erakundeak.</p> <p>"Establezimendua" ondasunak edo zerbitzuak produzitzen dituen unitatea da, bertan ekonomi edo gizarte izaerako jarduera bat edo gehiago egiten direnean, titular edo enpresa baten erantzukizun pean, toki, lokal edo elkarri lotutako lokal-multzo batean, kokapen topografiko jakin batean. Jarduerak, euren ezaugarriak direla bide, ez badira kokaleku jakin batean egiten (garraioa, eraikuntza, alokairuak, garbiketa, arte jarduerak, etab), jarduerak antolatzen edo koordinatzen diren lekua izango da establezimendua. Kasu horretan, enpresaren edo titularraren egoitza soziala edo legezko helbidea izan daiteke establezimendua.</p>	